

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

2932

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 29koa, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarena; honen bidez, jendaurrean jartzen da Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektua.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko maiatzaren 29ko Aginduaren bitartez, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektuari alde zuzena eman zitzaien.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Zentzu horretan, lege-aurreproiektuaren izapideei hasiera eman zien aginduan ezarri zen jendaurrean jarriko zela aurreproiektua, erregulazioan interesa duten gizarte-eragileek ahalik eta parte-hartze handiena izatea ziurtatzeko.

Azaldutakoagatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzea hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkezteko aukera emateko helburuarekin, lege-aurreproiektua Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.eus) eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzaren web orrian (www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus) egongo da eskuragarri.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 29a.

Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria,
AITOR ZULUETA TELLERIA.